Eta, hain justu, idazle haren aipamenaren ostean dator Euskal Herriari buruzko aipamena ere *Errepidean* hasiera aldera. Narratzailearen hitzetan, Hemingwayren moduko ipuinak idazten dabilen eta Hermingwayren bidaia paretsuak egiten dituen Roland Major izeneko pertsonaiaren ahotan. Lasaitasunaren ikur.

«Ai, Sal, nirekin Euskal Herriko barnealdera etorriko bahintz eta biok han eserita 19ko Poignon botila hartuko bagenu, orduantxe ikusiko huke zama bagoiez gainera badela besterik munduan». «Horrenbeste bazakiat», erantzungo dio Salek. «Kontua duk atsegin ditudala zama bagoiak eta atsegin dudala haietan izenak irakurtzea: Missouri Pacific, Great Northern, Rock Island Line. Jainko maitea, Major, baheki zer-nolako gauzak gertatu zaizkidan hor zehar auto-stopean nenbilela».

Orain arte 'Errepidean' da Kerouaci euskaraz irakurri ahal zaion lan bakarra, Iñigo Roqueren itzulpenean

Mundu osora 'beat belaunaldia'-ren eragina eta, besteak beste, Pott bandan izandako itzala aztertu du Oteaegik

Beste hamabi eleberri eta hamaika poema liburu eman zituen argitara, baina *The Town and the City* (Herria eta hiria) izeneko eleberria izan zen denetan lehena, 1950ean. Adituen arabera, gerora landutakoa baino askoz ere estilo konbentzionalagoa darabil bertan, Thomas Wolfe miretsiaren eraginpean. Paradoxikoki, ordea, hil zenetik ia 40 urtera kaleratu zuten idazleak idatzitako lehen eleberria: *The Sea Is My Brother* (Itsasoa anaia dut) izenekoa, Kerouacek 1942an idatzia.

Frantsesezko lanak

Sasoitsuan merkataritza ontzidian egindako soldadu garaia zuen oinarri nobelak. Eskuizkribu hura berreskuratu, eta 2010ean eman zuten argitara. Eta, hil zenez geroztik, tantakatantaka joan dira bestelako testu argitaragabeak, edizio bereziak eta eskutitz trukeak azaltzen. 2016an eman zituzten argitara, esaterako, gaztaroan frantsesez idatzitakoak.

Bizitza eta literatura egarri horrekin ere, eusten irudikatu zuen maisutzat Ginsbergek. Haikuetan. Laburrean ere igartzen baita emaria. «Telegramarik ez gaur/ hosto erori/ gehiago bakarrik».

Zer egin iraganarekin gustukoa ez denean

Irati Majuelo

Ezaguna da Alberto Barandiaran euskal letretan, ez baitira gutxi bere sinadurapean argitaratu diren lanak. Kronika-erreportaien eta saiakeraren, kazetaritzaren eta literaturaren artean beti, ikerketa zein gogoeta interesgarriak plazaratu izan ditu. Historia sozialarekiko eta, bereziki, gerra, diktadura eta errepresioari buruzko interes berezia agertu du maiz, eta azkenengo argitalpen honek ere bide beretik jotzen du: amaginarrebaren anaiaren heriotzari tiraka, mahai gainean jartzen ditu Gerra Zibileko lehendabiziko egunek Sakanan piztutako giroa eta hurrengo urteetan mamituriko beldurra, jazarpena, isiltasuna. Aitonaren izenak ezerezetik jauzi egiten dion arte, lokatzez zipriztinduta.

Hasieratik nabari da asmo garbi bat Barandiaranen proposamenean: ur lohietan sartzeko prest dago, ahal den eta zintzotasun handienarekin. Ez da erraza arakatzea zergatik eman zuen izena amaginarrebaren anaiak Falangean, zergatik aurretik EAJkoa izandako gazteak amaitu zuen Lemoaitzen gudari euskaldunak (tartean EAJkoak) tirokatzen. Zer dela eta gertatu zen hori Altsasun, non eta «Nafarroako lotsaizunean». Ezkertiar aitortua izaki, ez da atsegina izan behar, ez. Gutxi dira familiaren edota gertukoen artean eskuindarren aldean lerrokatu zirenak ikertu dituenik. Hala ere, idazleak ez zuen Luis Fernandez ezagutu, 17 urteko gazte bat zen, Gerra Zibila hasi zenean beste askoren modura frontera joan zena. Barandiaranek aitonari buruz idatzi behar duenean, ordea, desberdina da guztiz idazkera, sakontasuna, emozioa.

'Gurea falangista zen'

Idazlea: Alberto Barandiaran.
Argitaletxea: Susa.

Hori dela eta, kronika-saiakera balantzan, bigarrenak hartzen du interes handiena, nahiz eta ez den idazleak gehien garatu duena. Izan ere, Luis Fernandezen historiari dagozkion atalek gehiago dute azalpenetik, fronteko egunen zerrendatzetik, hausnarketatik baino. Gertaeretatik haratago, ekarpen esanguratsurik gabeko atalak daude, diskurtsoari dagokionean bederen. Iturri historiko zuzenak ezinbestekoak dira historia berreraikitzerakoan, eta bide horretan garrantzitsuak dira oso, baina pisu handia dute liburuaren zatirik handienean, eta, ondorioz, kontakizun hutsean geratzeko arriskua dago. Alderdi hori indartzen du behin eta berriz erabiltzen den zehar-estiloak.

Alabaina, azkenengo atalak liburua irauli eta saiakeraren alde jartzen du balantza, Barandiaranen lanari beste dimentsio bat zabalduz. Pena da, zinez, liburu osoan zehar baliatu ez izana idazleak saiakerarako daukan gaitasuna. Izan, Pablo Amillano aitonaren izena jazartzaileen artean agertzeak ideologiatik haratago doan zerbait azaleratzen baitio idazleari, zerbait humanoa, erraietako asaldura eta zintzotasuna, bere burua lokatzetan sartzeraino daramana. Ikerketak hor dirau, kronikak testuari behar duen oinarria eskaintzen dio, baina bosgarren kapituluan pentsamenduaren sakontasunak gailen egiten die gertakariei. Gorputzean, familia-loturetan, harreman intimoenetan loratzen dira aurretik aipaturiko beldurrak, isiltasunak, indiferentziak, eta egiazkotasun ukigarriz irakurtzen dira. Ez da aitona loriatzen, ez da zuritzen, ez moralki barkatzen; ez da ere senideen errua bizkarrean zamatzen. Isiltasunari bozgorailu bat jartzen zaio, eta egungo begiez entzuten, egungo gorputzez mintzatzen.

Zazpiko bilduma

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Album ilustratu hau bi eskutara idatzitako bilduma baten lehen zenbakia da. Bildumaren zazpi zenbakiak kalean dira, *Rotia eta Rensu* izenpean.

Lehen lan honetan herensugeen iragana eta oraina aurkezten zaizkigu. Esaten zaigunez, garai batean lurbira osoan arruntak ziren herensugeak, baina halako batean gizakiak beldur hartu zien, eta ia desagertzeraino akabatu zituen. Bakarrak iraun zuen bizirik: Rensuk. Liburuaren amaiera aldera aurkezten zaigun izen bitxiko neskato protagonista Rotia da, arbola baten puntatik izarrei begira ari zela, Rensurekin topatu dena.

Titulu bakoitzak mezu berezitu bat adierazten du: lehenak aurkezpenak; bigarrenak neskatoa herensugearekin babestuta dagoela; hirugarrenak emozioak adierazteko beharra; laugarrenak hizkuntza eta kultura ugaritasuna; bosgarrenak haserrea eta berradiskidetzea; seigarrenak adiskidetasun bahitzaileak saihestea; zazpigarrenak enpatia eta zintzotasuna.

Irudiak ordenagailu bidez egindakoak dira, oinarrizko formak erabiliz, kolore biziko paleta oso zabalarekin, irudi eta konposizio ulerterrazak eskainiz.

'Rensu, Rotiaren lagun berria'

Idazleak: Bakarne Atxukarro eta Izaskun Zubialde. **Ilustratzailea:** Raquel Samitier.
Argitaletxea: Erein.

Buru askea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Tapa gogorreko liburua da, tamaina estandarrekoa (21x17 cm) eta 36 orrialdekoa.

Ipuina da, pertsona errealak eta hegazti basatiak agertzen dituena, ezohiko interakzioan.

Istorio aldarrikatzailea da, haurtzaro zoriontsua jomuga duena, baita giza kondizio buruaskeagoa ere. Asmoa gauzatzeko *txoriburu* adjektiboaren esanahiarekin jolasten dute.

Protagonista Simona da, 8 urteko neskato nekaezina. Bere ezaugarririk bitxiena burua txoriz betea izatea da. Ez nolanahi, ordea: benetako txoriak ditu ile artean.

Simona pozik bizi da adiskide lumadunak buruan dituela, baina ingurukoek ez dute berdin bizi. Gurasoek ezin dute eraman, hainbeste kantu buru nahasle, hainbeste luma-zirin nonahi. Hartara, bide gogorretik jotzea erabaki, eta ornitologo bat ekartzen dute, neskatoaren burua txoriz garbitzeko. Simonak ez du batere ongi hartzen buru garbitze hori eta, txoriek airean hartuta, ihes egiten du leihotik barrena. Itzultzean gurasoek gozo hartzen dute, eta irtenbide asegarri bat hitzartzen.

Ilustrazioek kontakizunaren tonua ezartzen laguntzen dute, eta hainbat pasarte azpimarratzeaz arduratzen dira.

'Txoriburu'

Idazlea: Alicia Escribano.
Ilustratzailea: Patricia De Blas.
Itzultzailea: Amaia Apalauza Ollo.
Argitaletxea: Denonartean.